



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko abenduaren 7a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—10-23/LEY-00010. Foru Lege proiektua, Nafarroako arrantzaren kudeaketari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-23/LEY-00010. Foru Lege proiektua, Nafarroako arrantzaren kudeaketari buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikulua ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako arrantzaren kudeaketari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen. Foru Lege proiektua 2023ko azaroaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA CONTIGO
NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

8. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“8. artikulua. Arrantza egiteko baldintzak.

1. Nafarroan arrantza egiteko, Nafarroako Foru Komunitatearen arrantza-lizentzia eduki beharko da (foru lege honen 11., 50. eta 51. artikuluetan azaltzen diren kasuetan izan ezik), bai eta behar diren baimenak ere, eta legez eta erregelamenduz ezarritako baldintzak bete.

2. Arrantza egiteko, interesdunak agiri hauek eduki beharko ditu:

a) Indarreko arrantza-lizentzia, salbu eta aurreko apartatuan jasotako kasuetan.

b) Identitatea frogatzeko agiria, Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.

c) Arrantza-tarte motari dagokion arrantza-baimena edo espezie exotikoen kontrolerako barruti- edo ur-pasea, horiek behar diren kasuetan.

d) Arrantza pribaturako uretan, arrantza-eskubidearen titularraren edo hura errentan duenaren baimena.

e) Baimen bereziak, baldin eta halakoak behar dituzten arrantza-tresnak edo -bitartekoak erabiltzen badira.

f) Foru lege honetan, berau garatzeko xedapenetan edo indarreko beste edozein arautan eskatzen diren gainerako agiri edo baimenak.

3. Arrantza egiten duenak frogatu beharko ditu bai bere identitatea, bai arrantza egiteko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela”.

Justifikazioa: Zuzenketak testua hobetzen du, eta zuzendu egiten da arrantza-lizentzia edukitzea 52. artikulurako beharrezkoa ez dela dioen oharpena.

2. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

9.2 artikulua aldatzeko zuzenketa:

“Oro har, debeku da gaez arrantzatzea, salbu eta interes eta izaera sozialeko egoera jakin batzuetan, Ingurumeneko Departamentuaren aldeko aurreko baimenarekin.”

Zioak: Araua malgutzea, ohiz kanpoko eta arrazoitua den une batean arrantzatzeo aukera egon dadin.

3. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

11. artikuluan 7. puntua gehitzeko zuzenketa:

"7. Arrantza-lizentzia ez da beharrezkoa izanen foru lege honen 49., 50., eta 51. artikuluetan jasoriko kasuetan".

Zioak: Legeak 49., 50. eta 51. artikuluetan ezarritako kasuetan ez da beharrezkoa arrantza-lizentzia edukitzea, eta artikulua honetan jasota gera dadin nahi dugu.

4. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA CONTIGO
NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

13. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gedituko litzateke testua:

"13. artikulua. Arrantza-baimenak.

1. Arrantza-baimena eduki beharko da tarte, ur-masa edo arro jakin batzuetan arrantza egiteko, arrantza-lizentziaz gain.

2. Arrantza-baimenek balioko dute tarte, ur-masa edo arro jakin baterako, eta arrantza-egun bakarrerako. Baimena eskuratutakoan, hura pertsonala eta besterenezina izanen da, eta gaituko du emandako baimenari dagozkion espezieak harrapatzeko, baimenean zehaztutako modalitateak erabiliz; gainera, baimena eskuratzearekin, titularrak onartzen ditu tarte, ur-masa edo arro horretarako diren arau espezifiko guztiak.

3. Erronka demografikoko udalerrietan turismoa sustatzeko asmoz, Nafarroako Foru Komunitatean erabilgarri dauden baimenen ehuneko jakin bat erreserbatu ahalko da, ez dena inola ere izanen erabilgarri dauden baimenen % 15 baino gehiagokoa. Erronka demografikoko udalerrietan kokatutako turismo-ostatuak eskatu ahal izanen dituzte baimen horiek, baldin eta arlo horretan indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera behar bezala erregistratuta badaude. Ezinbestekoa izanen da baimena ematen zaion arrantzaleak turismo-ostatu horretan igaro dezan baimena baliatu aurreko edo ondoko gaua. Era berean, baimen horiek eskatzea zilegi izanen dute arrantza-jarduerari laguntzeko zerbitzuak ematen dituzten enpresek.

Debekualdien xedapen orokorrean ezarriko da turismoa sustatzeko baimenak erreserbatzeko eta liberatzeko prozedura, bai eta arrantza-jarduerari laguntzeko zerbitzuak ematen dituzten establezimendu edo enpresen egiaztapena ere.

4. Arrantza-kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuaren titularraren foru agindu

baten bidez ezarriko dira baimen motak, modalitate bakoitzerako erreserbatutako ehunekoak eta horiek emateko prozedura".

Justifikazioa: Zuzenketarekin erronka demografikoko udalerrien garapen ekonomiko eta turistikoa sustatu nahi da, arrantza-jarduera oinarri hartuta.

5. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

24.2. artikulua aldatzeko zuzenketa:

"2. Baimendurik dago arrantzatzen ahal diren espezie exotiko inbaditzaileetako aleak eduki eta garraiatzea horiek akabatu ondoren, baldin eta helburua bada autokontsumoa edo horiek desagerrarazteko toki apropos batera eramatea. Espezie exotiko inbaditzaileen kasuan, horiek arrantzatzea baimenduta ez badago, lekualdatzea baimenduko da horiek akabatu ondoren, autokontsumorako edo horiek desagerrarazteko toki apropos batera eramateko".

Zioak: Artikulu honetan jaso nahi da zer egin behar den espezie exotiko inbaditzaileen arrantzarekin, baldin eta horien arrantza baimenduta ez badago.

6. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

47.2. artikulua aldatzeko zuzenketa:

"2. Harrapatu eta eramateko arrantzako urak izanen dira ibilgu nagusietako arrantzarako luzera guztiaren % 20 gehienez, arrantza-arro bakoitzaren barnean, eta barruti gisa deklaritzen ahalko dira edo ez. Izokinaren kasuan izan ezik, horren arrantza jada mugatzen baitu urteko harrapaketa-kuotak, Enderlatsa eta Bera artean Bidasoa ibaiak duen izokin-tartean".

Zioak: Eskatzen dugu artikulua hori ez aplikatzea Bidasoa ibaiko izokin-arrantzari; izan ere, izokinaren arrantzak mugatuta dauka jadanik arrantza-eremua (izokin-tartea) ibaiaren 6 km-ra soilik, eta harrapaketa-kuota oso mugatua du, izokinaren etorkizuneko bideragarritasunari eragiten ez diona.

Artikulu hori aplikatzeak Bidasoa ibaiko arrantza tradizionala amaitzea dakar.

7. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

49.2. artikulua aldatzeko zuzenketa:

“2. Arrantza-barrutiak ezartzen ahalko dira, osorik edo zati batean, harrapatu eta eramateko arrantzaren araubidean. Erauzketa-arrantzako araubidean dauden arrantza-barrutien guztizko arrantza-luzera erauzketa-arrantzako tarte mugatu gabeei gehituko zaie, eta gehienez ere ibilgu nagusien guztizko luzera arrantzarriaren % 20 izanen da, arrantza-arro bakoitzean. Arrantza-barrutiak eratu eta antolatzeko, bai eta haien funtzionamendurako ere, foru lege honetan xedatutakoari jarraikiko zaio”.

Zioak: Testu berri bat sartzea eskatzen dugu, bermatze aldera gehienez ere % 20 izan dadin erauzketakoa, Bidasoa ibaia barne hartuta. Debe-kualdi-aginduek Legeak ezartzen duena bete behar dute; beraz, onartuko balitz, hobetu eginen litzateke, bertako espezie guztien arrantza harrapaketa- eta askatze-erregimenean egin behar baita, baina arrantzarako libre dauden uretan.

Zehaztapena da arrantzarako ur libreez gain, harrapatu eta eramateko arrantzako urak ere badaudela, zeinak ibilgu nagusien arrantza-luzera guztiaren % 20 izanen baitira gehienez ere, arrantza-arro bakoitzaren barnean, eta barruti-araubideko gisa deklaritzen ahalko dira edo ez. Beraz, arrantza-barrutiak egon daitezke, eta horiek ere erauzketa-arrantzakoak deklaratu daitezke. Arriskua da teoriar horiek ez direla sartzen % 20 horretan, eta horren ondorioz, gerta daiteke erauzketa-arrantzako dozenaka barruti sortzen saiatzea, % 20 hori ez betetzeko.

8. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA CONTIGO
NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Bigarren xedapen iragankorra. Beruna erabiltzea arrantza-aparailuetan.

Arrantza-aparailuetan beruna erabiltzeari buruz 21.1 j) artikuluan ezarritakora egokitzeko, 2025eko urtarrilaren 1era arteko egokitze-epea ezartzen da”.

Justifikazioa: Zuzenketarekin testua zuzentzen da.

9. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA CONTIGO
NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Hirugarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Hirugarren xedapen iragankorra. Askatzeen jatorri genetikoa.

Foru lege hau indarrean sartzen denetik 8 urteko epean, Nafarroako Gobernuak egokitu eginen ditu zentro iktiogenikoetako lerro genetikoak, 28.3 artikuluan xedatutakoa betetzeko”.

Justifikazioa: Zuzenketarekin testua zuzentzen da.

10. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko 3. puntua aldatzeko zuzenketa. II. kapituluaz hitz egitean, bigarren paragrafoak hauxe dio:

“Bada garrantzizko aldaketa bat Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legearen aldean, xedatzen baita arrantza-debekualdiei buruzko xedapen orokorrak ez direla urtero onetsi beharko, eta 5 urte bitarteko indarraldia izaten ahalko dutela”.

Aldatu beharko litzateke, eta hauxe idatzi:

“Debekualdien legea urtero onetsiko da, salbu eta, Arrantzarako Aholku Batzordearen gomendioarekin bat, ezohiko arrazoiak direla-eta berrikusketa-epea gehienez ere 5 urtera luzatzea erabakitzen bada”.

Zioak: lege-proiektu honek ezartzen duen epe hain luzea saihestea, eta Arrantzarako Aholku Batzordearen gomendioen esku uztea.